

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko abuztuaren 15a ▶ Astelehena

IRUTXULOKO HITZA LAGUNTZEN DUEN ERAKUNDEA

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

HITZA-KO BEZEROREN ARRETA ZENBAKIA
(zabiltzak argitzeko, harpidedun egileko...)

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

28

hotzera

18

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



GAURKO
ITSASALDIAK

↑ ordua: 00:15 - 13:31

metroak: 3,80 - 3,87

↓ ordua: 06:51 - 19:38

metroak: 2,08 - 2,02

943 30 43 46

MOKO eta KARMELE ▶ MATTIN



HAU ASTELEHENA! ▶ ION LOPEZ

Aste nagusi xamarra

ISTILUAK NAGUSI. Zoritxarrez, Aste Nagusiaren hasieran, istilu larriak izan dira. Ez da jaiak hasteko modu ona. Inondik ere. Are gehiago, batzuentzat jaiak bukatu egin dira. Zauritutakoentzat edo atxilotutakoentzat, adibidez. El-karrizketa garaia dela diote, ditxosozko gatazka konponbidean dela, baina zoritxarrez, berriro ere, istiluak nagusi.

NAGUSIA ? Nagusi izenarekin baitaiatu zuten. Arrazoiaren bat izango zen. Festa honek ez omen du Nagusi izena merezi batzuentzat. Denak, ordea, ez daude ados. Ezta gu ere. Aste baten nagusitasuna neurtzeko tresmarik ez dute oraindik asmatu. Beraz, oraingoz, gureak Aste Nagusia izaten jarraitu beharko du. Horretarako arrazoiak baditu. Galdetu, bestela, ostalariei, hoteletan tokirik ez dagoela esateaz nazka-nazka eginda dauden harreragileei edo karrakela oskolak kaleetan egunero garbitu behar dituztenei. Denek, onerako ala txarrerako, aste hau Nagusia dela esango dute.

ARTIFIZIALAK, SUAK. Urtzen



Erraldoi eta buruhandien kontzentrazioa egingo da hilaren 21ean.

ari den izozkiaren tantak arropara erortzen ari diren bitartean txinparta erraldoiak ikustea tontakeria omen da. Lehengo topikoa, izozkia. Ezinezkoa baita suen aurretik edo ondoren, izozkirik erostea. Izozki dendako erakusmahaira iristeko zortea duten lehen 500 lagunek dute soilik aukera hori. Beraz, su festako 50.000 ikusleren artean, %1 besterik ez dira. Bigarren topikoa, tontakeria. Urtaoroaren arabera, jazzalez, melomanoz edo zinezalez josita dagoen hiri honetan, zergatik dago gaizki ikusita *filopiroteknikoek* iritzia ematea? P.D.: Ekar dezatela berriro Ameriketako Estatu Batuetako Garden State Fireworks piroteknia. Su artifizialen U2.

ABORDA NAZAZU. Bizitzaren eta jaien alde pirata azaltzea sanoa da. Beraz, osasuntsu dabilta gaur bertan aboradutako gaituzten pirata gazteak. Lasai! Geldi zaitzete, ez ihesi joan, jaiak aberastu eta kolorez jantzi besterik ez baitute egiten. Eta, udal ordezkariok, zuek ere ez zaitzete gehiegi urrundu —tira, pixka bat bai, baina ez gehiegi—; gustatu ala ez, piratek antolatutako ekintzak egitarau ofizialaren hutsunea betetzen saiatzen direlako. Eta hutsunea zabal samarra da oraindik. Zulo handia duzue estaltzeko, pirata!

AGURRAK ▶

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak,
jaioberriak...
zoriontzeko, etorri:

CLICK DONOSTIA argazki denda (Peñaflorida 6)

FOTO MIKI (Matia kalea 3)

KATTAGORRI argazki denda (Larratxo pasealekua 26)

DAM arropa denda (Narrika 23)

EASO LIBURUDENDA (Mandasko dukea 9)

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!